

POLITIKA PUBLIKOETAN GENERO IKUSPEGIA EGOKITZEKO GIDA

BORTZIRIAK-EKO TEKNIKARI ETA POLITIKARIEI ZUZENDUA
2006-ko ABENDUA.

Gidoia

1. JUSTIFIKAZIOA
2. SARRERA: GENERO IKUSPEGI EGOKITUA EZARRI BEHAR DEN TESTUINGURUA
3. GENERO IKUSPEGI EGOKITUA
4. GOMENDIO OROKORRAK
 - a. Hizkuntzaren erabilera ez sexista
 - b. Lan talde paritarioak
5. GENERO IKUSPEGI EGOKITUA JOKABIDE PUBLIKO DESBERDINETAN
 - a. Diagnostikoa
 - b. Genero ikuspegia duten programen ereduak
 - c. Zuzeneko harrera
 - d. Formazioa
 - e. Genero ikuspegiarekin presupuestoak
 - f. Laguntza eta diru-laguntzak
 - g. Kontratazio publikoak eta erosketak
 - h. Informazio eta zabaltze ekintzak

JUSTIFIKAZIOA

Jendarte berdintasunera bideraturik dauden proposamenak, jadanik ez dira emakumeen aldeko ekintza zehatz eta berezietara mugatzen, baizik eta estrategia zabalagoetan garatu dira.

Gizonak eta emakumeak desberdinak gara, modu desberdinetan pentsatu eta bizi gara, nahiz eta bere behar eta eskubide berdinak izan. Espezifikidade hauei harrera ematea errekurso eta erabakiak optimizatzea suposatzen du. Erabaki argi batek, barne hartzen dituen pertsona guztiak izan behar ditu kontutan, bere ezaugarri, berezitasun, behar eta eskaerak kontutan izanik. Emakumeei zuzendutakoak kontuan hartu gabe, populazioaren %50 baino gehiago suposatzen dutenak, hauen efikazia eta onurak modu arriskutsu batean gutxitzen dira, jendarte justizia gaia izateaz aparte.

Beraz, politikan genero perspektiba sartzea, berdintasun errealaren bidean aurrerapen bat da.

Garapen politiko eta demokratikoaren ikuspuntutik, ez da posible demokrazia indartsu bat eraikitzea, jendarte erdia baino gehiagok beren eskubideak erabiltzeko dituzten oztopoak deuseztatzen ez diren bitartean.

Jendarte kontzeptuak, pertsona guztien eskubideen indarketa beharrezkoa du bai modu legal zein formalean, hau da, eskubideen erabilera eraginkorra ezinbestekoa da.

Alderdi ekonomikoaren ikuspegitik ere, gaur egun emakumeek pairatzen ari diren desberdintasunak ez zuzentzea eta beren behar zein nahiei, rol eta ardurei atentziorik ez jartzeak, politika publikoetako kudeaketan errekurso eta eraginkortasunen galera dakar, emakumeek garapenari eman dezaketen ekarpenak ez erabiltzeagatik.

“Berdintasunaren bultzapena ezin daiteke estatistika orekatzearen helburu sinplearekin nahastu: Roletan eta familia egituretan aldaketa iraunkorrak proposatzean datza, praktika instituzionaletan, denboran eta lanaren antolakuntzan...”

Europako Komisioaren komunikazio atala “Komunitate ekintzetan eta politiken osotasunean emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna barneratzea (COM(96)67 bukaera) “

Gaur egun arte, nahiz eta esfortzuak egin diren, ez dira ekintza publiko asko izan emakume eta gizonen arteko lehentasun, aukera, behar... desberdintasunak kontutan hartu dituztenak.

Nahiz eta hau horrela izan, Espainiako konstituzioak bere 9.2 artikuluan adierazten du “Botere publikoei dagokie norbanakoaren eta taldeen askatasun eta berdintasun errealak eta eraginkorra izateko kondizioak sortzea, eta politikan, ekonomian, kulturen zein jendartearen pertsona guztien partehartzea erraztu eta bermatzea ”.

Herri – Aginteen Nazioarteko Biltzarrak 2004 urtean ospatutako bileran “Emakumeak Herri Gobernuetan “ izen burupean, berdintasunarekiko konpromisoa hartu zuten Mundu Mailako Adierazpenean: “Autonomia demokratiko lokalak ezinbesteko papera jokatzen du munduko biztanle guztientzat justizia sozial, ekonomiko eta politikoa ziurtatzean; eta jendartearen biztanle guztiak, naiz emakume zein gizonek, gobernabilitate prozesuaren barne egotean ”.

Administrazio lokalak, hiritartasunetik gertuago dauden erakunde bezala, emakumeen eta gizonen oinarrizko beharrei erantzuna eman behar dieten lehenak dira, udalerriko ongizatea bermatzearren.

Bortziriak-eko Ekintza Positiboko I Planak hau izaten du kontutuan, bai bere sarreran nola barneratzen duen filosofian.

Honen ondorio da gida hau, zeinek udal – jokabideen arlo eta esparru guztietarako Planean finkatutako helburu komunari ematen dion erantzuna.

“ Genero perspektiba, Mankomunitate eta udal arlo guztietan barneratzea ”.

Berdintasuneko formakuntzarekin batera, ezin bestekoa dena udal jarduera guztietan genero perspektiba aplikatu ahal izateko. Gida hau lan tresna izatea du helburu zeinarekin Bortziriak –eko politikari eta teknikariek beren programazioak Genero Ikuspegiarekin egin detzaketan.

Gida honek udal jokabide guztietan, tekniko zein politikoetan Genero ikuspegia egokitzeko irizpideak ezartzen ditu, lehen aipatutakoa 1.2 Ekintzaren helburuak adierazten duen bezala.

“Udal ekintza guztietan aukera berdintasunaren printzipioa egokitu behar da ”

Gidak ere hizkuntza sexista ez erabiltzeko gomendioak garatuko ditu aurreko helburuaren 1.3. Ekintzarekin jarraituz:

“Mankomunitate eta udal dokumentaziotik hizkuntza sexista erakusten duen irudi, adierazpen edo eduki guztien erradikazioa ”.

Gida, Bortziriak –eko politikari zein teknikariei dago zuzenduta, Genero Ikuspegia arlo, ekintza eta programazio guztietan egokituta egon behar baita, hau da, Bortziriak –en hartzen diren erabaki guztietan. Europar Batasunak eskatzen duen bezala.

Sarrera. Genero ikuspegi egokitua eratxeki behar den testuingurua.

Historian zehar egondako jendarte guztiak sexuen arteko anatomia desberdintasunetatik eraikiak izan dira, hauek desberdintza sozial eta politikoetan bilakatu.

Haurtzarotik jasotzen dugun hezkuntzak, sinismen eta balore zehatz batzuk, mental eta emozionalki barneratzeko bideratzen gaitu. "Emakume " eta "Gizonek " bezala jokatzeko ikasten dugu, androzentrismo izaera duen orden sozial zehatz batean oinarrituz.

Simone de Beauvoir-en aburuz: "Emakumea ez da jaiotzen, izatera iristen da ". Rol batzuk barneratzen ditugu, sexuaren arabera funtzio desberdin batzuk, genero identitate subjektibo eta kultural bat barneratuz. Rol hauek hain modu sakonean barneratzen zaizkigu zein, batzuetan zaila egiten zaigu pertsonak berezkoa duena desberdintzea, genero identitate batekin edo bestearekin espero den jokaerarekin, bere sexuaz harago.

Sistemaren desegokitasuna, genero femeninoarekin zerikusia duen guztia azpibaloratu eta inbisibilizatu duena da, bizitza osoa, ohiturak, espazioa eta denbora maskulinitatearen inguruan zentratuz, hau unibertsaltzat hartzen den heinean .

De Barbierik esaten duen bezala: "Gaur egun indarrean dagoen **sexu-genero sistemak** emakume eta gizonen arteko botere harremanetan desberdintasunak sortzen ditu, ezagutza, jabetza, diru sarrera, erresponzabilitatea eta eskubideen banaketarekin zerikusia dutenak beraz, desberdintasun sozial baten aurrean gaude ". (De Barbieri, 1992).

Gaur egun, oraindik generoaren arazoia dela medio desberdintasun ugariekin bizi gara, bai lan arloan, sozialean zein kulturean. Hauetako batzuk honakoak lirateke:

- Bereizgo horizontala

Emakumeak lan merkatuan beren genero rola berregiten duten lanpostuetan – ama, zaindaria...- biltzen jarraitzen dira gizonaen modura. Nahiz eta beren garrantzi soziala ukazina izan, gizonak baino errekonozimendu gutxiago izaten dute, beraz okerrago ordainduak eta lan kondizio eskasagoak izaten dituzte.

- Bereizgo bertikala

Erresponzabilitatea duten lanpostuetan, hala nola erabakiak hartzekoetan oso emakume gutxi egoten jarraitzen du, nahiz eta gizonaen baino formatuagoak egon.

- Langileen aukeraketan bereizkeria

Curriculum berdinen aurrean eta emakumei dagokienez formazioan hobeagoak, enpresariak gizona nahiago izaten jarraitzen dute. Eginbeharretan eta zaintzan gizonaen aldetik erantzunkidetasunik ez egoteak, kontziliazioaren pisua emakumeen gain erortzea suposatzen du, bere kontratazioarako hándicap handia suposatuz.

- Soldatari dagokionez bereizkeria

Azken datuen arabera, lan berdinentatik edo balore antzekoa duten lanengatik emakumeak gizonaen baino % 25 - %30 gutxiago kobratzen dute.

- Balore eta trebetasun maskulinoak femeninoen gainetik

- Harreman pertsonal, sozial, kultural zein ekonomikoetan dominazio maskulinoa.

Emakume asko bere eskubide gabe geratzea suposatzen du.

- Kontziliazio falta

Etxeko lanetan eta zaintzan erantzunkidetasunik ez egoteak, lana, familia eta bizi pertsonalaren kontziliazioa batik bat emakumeetan erortzea ekartzen du, jardunaldiek eta presentzia (leku batean egonda beste batean pentsatzen egotea, biak gaizki egiten diren sentazioarekin) bikoiztuz eta hirukoiztuz. Honen ondorioak, emakumeen jardunaldien murrizketak, eszedentziak... izango dira.

Errealitatea ikuspuntu honetatik aztertzeak, berezko arazoak emakumeak ez direla, baizik eta, emakume eta gizonen arteko botere harremanen ezberdintasuna dela arazoa onartzea suposatzen du.

Honen zuzenketa perspektiba bikoitz baten bitartez jokatzear datza:

- Desabantailan dauden pertsonak laguntzea desberdintasunak zuzenduz, ekintza puntual eta konkretuen garapenen bitartez (ekintza positiboak),
- Aurrera ateratzen diren politika eta jardura guztietan genero ikuspegiaren egokitzapena (transbersalitatea).

Bi bide paralelo hauek, ez baztertzailak, arautegi estatal, komunitario eta nazioartearengatik bermaturik daude: ONU, OIT, Emakumeen inguruko Beijingeko Konferentzia internazionala...

Zer esan nahi du bereizkeria hitzak?

Ekintza positiboetaz hitz egitean, talde askotan bereizkeriakoak ote direnaren zalantza sortzen da. Ez dugu honetan sakonduko, genero ikuspegiko ekintza positiboak Espainiako konstituzioak eta beste arau estatal, komunitario eta

internazionalengatik zainduak eta babestuak baitaude. Baina interesgarria egiten da "bereizkeria" kontzeptua lantzea.

Convención para la Eliminación de todas las formas de discriminación contra la mujer (CEDAW), 1979an sexu arrazoiak egiten den bereizkeria definitzen du, Espainia eta 169 herrialde gehiagorengatik ere berretsita:

"Sexuaren arabera egiten den edozein aipamen, bazterketa edo murrizketa oro, emaitzatat emakumearen edozein ekintza, gozamen edo errekonozimendu deuseztatzea duena, bere egoera zibila kontutan hartu gabe, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna oinarri izanik, baita giza eskubide eta oinarriko askatasunak edozein esfera politiko, ekonomiko, sozial, kultural edo zibiletan "

Definizio honen atzetik hiru aspektu nabarmen ezkututzen dira:

Lehenik eta behin, lege batek diskriminatu egiten du EMAITZA bezala emakumearen bereizkeria bilatzen duenean. Lege hori bereizkeriarako zabaldua izan den edo ez kontuan hartu gabe. Honegatik lege guztiek gizon eta emakumeak berdinean tratatu behar dituzte, EMAITZETAN emakumeen giza eskubideak murrizten dituen legeak, diskriminatu egiten duen legea izango da.

Bigarrenik, herri batengatik berretsia izatean, bertan esaten dena bereizkeria dela esaten da horrela ulertzen delako.

Hirugarrenik, gai guztietara zuzenduta dagoenez "politiko, ekonomiko, sozial, kultural eta zibil edo beste edozein gaiari", honek esan nahi du, bereizgarriak direla ere emakumeek arlo kulturean eta etxean pairatzen ditugun murrizketak, eta ez bakarrik arlo edo esfera publikoan.

Ez da nahikoa emakumeak gizonak bezala tratatuak izan behar diren legeak egitearekin, edo eskubide eta egin behar –berdintasun formala edo legala- berdina errekonozitzearekin, ezta ere ugalketa funtzioari babes berezia ematearekin desberdintasunak desagertuko liratekeela ulerkuntzarekin, honek gizonetik dauden antzekotasunak kontutan izatea suposatuko bai luke, desberdinak garen beste edozertan desberdin tratatuak izango ginatekeelarik.

Aukera berdintasun erreala eta eraginkorra izan dadin, jarrerak eta portaerak, balore eta jendarte egiturak aldatu behar dira, hauek emakumeei beren eskubide guztien erabilera galarazten dietelako.

Ondorio bezala, Cedaw-ek emakumeak eta gizonak ezberdinak garela esaten du, eta bereizgarriak direla desberdintasun emaitzak bultzatzen dituzten tratatu berdina guztiak.

Berdintasunak desberdintasunak onartu eta ezagutzen ditu, baina ez bereizkeriak.

Bereizkeria ezabatzeko borrokaren helburua, **generoen berdintasuna** da, jendarte eskubideen erabilera atseginean, aurreikusiz emakumeek eta gizonak behar desberdinak eta hauek asebetetzeko modu desberdinak ditugula. Emakumezkoak ikuskatu eta harrera egin behar zaie, mendeetan zehar ikusezinak izan baitira, neurri zuzentzaileak justifikatzen.

Neurri zuzentzaile hauek arau nazional eta internazionaletan oinarrituak daude eta transbersalitatean sostengatuak egon behar dira, hau da, politika eta jardura guztietan genero ikuspegia egokitzea, Beijing-eko ekintza plataformako konferentzian zehaztu zen bezala, estrategia duala finkatu zenean.

Genero ikuspegi egokitua.

Jarduera eta erabaki guztietan **genero ikuspegia egokitzea**, fase guztietan, diagnostikoan, planifikazioan, exekuzioan edo ebaluazioan emakume eta gizonen baldintza egoera eta behar desberdinak kontutan izatea suposatzen du, genero berdintasun erreala lortzeko helburuarekin. Kontutan izan behar dira ere politikak eta erabakiak, esparru eta sektore guztietako emakume eta gizonetan izaten dituzten ondorioak, genero rola eta harremanak aurreikusiz.

Zeintzuk dira genero ikuspegi egokitua ezartzeko aurre baldintzak?

Europako kontseiluak honako hauek identifikatu ditu:

- Emakume eta gizonen arteko desorekak gainditzeko borondatea eta konpromiso politikoa.

Aukera berdintasuna gestio publikoaren oinarritzko helburutzat hartzea suposatzen du.

Horregatik, **adierazle onak dira**:

- Udal pleno batean eratzea eta arlo zein udal departamentu guztietarako lokarri izatea.
- Barne dauden politikari eta teknikari guztiei informatu, eragin edo sortu daitezken zalantzak nor konponduko dituen identifikatuz.

- Konpromisoaren jarraipena egiteko komisio bat sortu.
 - Konpromisoa aurrera ateratzeko errekurtsio nahikoak egokitu.
- Jende eta finantza errekurtsio nahikoak.
 - Berdintasunerako politika zehatzak indartu, legegintza neurrien – hizkuntza sexista ez erabiltzearen ordenantza bat bezala – berdintasuneko babes mekanismoak, emakumeei, gizonei edo biei zuzendutako ekintza positibo zehatzen bitartez.
 - Emakume eta gizonen arteko desberdintasunen eta genero harremanen inguruko diziplinarteko ezagutzak. Europako kontseiluak udal-politiketan genero ikuspegia egokituko dutenentzako formazio espezifikoaren lehentasuna ezartzen du.

Formazio hau, zerbitzuaren hobekuntza bezala eta demokraziaren indarketa bezala ulertua izan beharko litzateke, administrazioaren hobekuntza helburuetan sartuz.

- Berdintasun printzipioaren inguruko sentsibilitatea ordezkari politiko zein teknikarietan, hauek izango baitira erabakitzen diren ekintzak garatu eta aurrera eramango dituztenak.
- Teknika eta tresna egokiak – generora sentsibleak – emakume eta gizonen egoera desberdinak, bestelako beharrak, baldintzak, interesak eta harremanak identifikatzen lagunduko dizkigutenak. Honela katalogatu ditzazkegu:

Azterketa edo analisi tresnak. Diagnostikoa egiteko, bere jarraipenean lan egiteko edo programa ebaluatzeko beharrezkoak direnak. Tresna hauen barruan:

- Genero azterketa
- Sexuka bereizitako estatistikak
- Eztabaida taldeak
- Inkestak
- Behaketa zuzena...

Tresna analitikoekin batera, **sentsibilizazio eta gaikuntzakoak** ere behar ditugu, genero ikuspegiarekin lan egiterakoan ezinbestekoak. Gizonak eta emakumeak berdintasunean "hezitzen" uzten digutenak dira, dauden desberdintasunak islatuz, emakume eta gizonen errealitate eta baldintza ezberdinak zabalduz eta ikaskuntza bide berriak ikustaraziz. Honen barruan sar genitzake:

- Formakuntza
- Sentsibilizazio kanpainak
- Topaketak
- Eztabaida saioak
- Materiak didaktiko eta informatzaileak: gidak, eskuliburuak...
- Ikaslanak, informeak

Bilatzen duguna emakume eta gizonen arteko partehartze desberdintasuna kontsultatu edo egiaztatzea bada, **partehartze eta kontsulta tresnak** erabiliko ditugu, emakume eta gizonen arteko partehartze berdintasuna bilatzen dutenak, iritzi eta iradokizunen elkarraldatzea errazten eta informazio sareak sortzen uzten dizkigutenak. Besteak beste honakoak dira:

- Galdeketak
- Eztabaida saioak, topaketak
- Datu baseak, berdintasun gaiarekiko ekintza positiboak eta praktika egokiak.

Beste tresna mota bat **jarraipenekoak** da, ekintza batek dituen emaitzak eta hauen ekarpenak berdintasunean analizatzen dituenak. Ikusitako desberdintasunen bilakaera eta ze punturaino berdintasunerantz aurreratzen ari diren aztertzea uzten dute. Atal honetan besteak beste honakoak daude:

- Genero adierazleak
 - Sexu banaketaz eginiko estatistika eta informeak
 - Koordinazio bilerak
 - Berdintasun eta jarraipen komisioak
- Oso garrantzitsua da emakumeak bizitza politiko eta publikoan hala nola, erabakiak hartzeko prozesuetan modu aktiboan parte hartzea, beren interes eta eskaerak kontutan hartuak izango direla ziurtatzeko.

Ezin daiteke benetako demokraziaz hitz egin, emakumeen portzentai altu batek ezin badu edo ez badaki nola erabili. Honetaz gain, beharrezkoa da erreferentzia modeloak sortzea, haurretan jendarte berdintasunerantz doazen espektatibak zabaltzeko.

Hau lortzeko ekintzak

- Udalerrian funtzionatzen duten taldeetan (Jai batzordea, jendarte partehartzearen batzordea, emakumearen udal kontseilua...) emakumeen partehartzea bultzatu.
- Udal kudeaketan emakumeen partehartzea errealia izateko errekurtsuak erraztu.
- Emakumearen udal kontseilu baten sorrera bultzatu egonen ez den kasuetan.

- Udaletxeak parte hartzen duen lan taldeetan (eskola kontseiluan, enplegu mailetan) emakumeak izendatu ordezkari bezala.
- Berdintasuna bultzatzeko emakume taldeekin lankidetzaz hitzarmenak ezarri.

- Emakumeen beharrei harrera egin.
Emakumeen autonomia pertsonalaren garapenean lagundu

Genero dimentsioari aurre egiteko modu desberdinak

- Genero "itsuko " proiektua: Genero perspektibak atzetan sartzen ez duena.

- Laguntzazko proiektua: Familien ongizatea hobetzen saiatzen dena eta emakumea bakarrik bere rol ugaltzarrian eta zaintzan ikusgaitzen duena.

- Emakumeetan zentratutako proiektua: Emakumeen zenbait beharren asetasunean oinarritzen dena, parte hartzea edo agerrera zabaltzea bilatzen duena.

- Genero ikuspegiarekin proiektua: Genero harremanetan sentikorra, desberdintasuna sostengatzen duten eraikuntzen aldaketa bilatzen du, eta emakume zein gizonen arteko egokitasun harreman berriak bultzatzen ditu. Espezifikoki emakumeekin, gizonekin edo emakume eta gizonekin lan egin dezake.

Kontutan hartzeko zenbait arau:

Hasierako urratsak

- Dauden desberdintzak identifikatu.
- Emakume eta gizonen errealitate eta egoera desberdinak behatu.

Lehen pausuak

- Beti sexuka banatutako datuekin lan egin.
- Emakume eta gizonen errealitate desberdinen eta harremanen inguruko informazioa bildu.

Aspektu kualitatiboetaz ere informazioa jaso beharko da:
Rolak, baloreak, ohiturak edo portaera arauak.

- Genero adierazleekin lan egin, sexuen arteko harremanak ze neurritan aldatzen diren esaten dutenak dira eta emakume zein gizonen perspektiba desberdinak biltzen dituztenak.
- Jasotako informazioa genero perspektibarekin interpretatu, analisi maila bezala ulertuta.

Horrela, femeninoa eta maskulinoa jendartean jatorri kultural dimentsioa duen antropologia ulertzen ditu, datu biologikoari garrantzi guztia kenduz. Modu honetan, genero perspektiba, emakumeak zapaltzen dituzten baldintza

kulturalak salatzeko klabea izango litzateke, hala nola baldintza hauetatik askatzeko ekimena bultzatzen duena.

- Aurkitutako desberdintasunak egokitzeko neurriak ezarri.

Gomendio orokorrak

Hizkuntza sexista ez erabiltzea

Hizkuntza, ikusten duguna, sentitzen duguna eta pentsatzen duguna adierazteko gure esku dauden zeinuen multzoa da. Berez, gure zerbitzura dagoen tresna da.

Jende eta historia eraikuntza bezala, gure errealitatearen somaketan eragina dauka, pentsamendua baldintzatzen duelako eta munduarekiko ikuskera mugatzen duelako. Hizkuntzaren bitartez errealitatea izendatzen dugu, baita ere interpretatu eta sinbolikoki sortzen dugu abstrakzioak finkatzerakoan.

Hizkuntza oinarritzko igorgailua da herri baten kulturean, momentu bakoitzeko errealitatea islatzen duelarik. Desberdintasunak, ikusgarria ez dena eta generorengatik egiten diren bazterketak, hizkuntzarekin islatuak gelditzen dira eta indartu egiten ditugu behin eta berriz aipatzean.

Sexismoa ez dago hizkuntzan, maskulinoa, femeninoa, neutroa, generikoak... dituelako, pertsonak gara erabilera sexista ematen diogunak, ikasi duguna, bizi duguna eta barneratzen dugunaren arabera aukeratzen dugun formula erabiliz.

Hizkuntza zuzenketaren garrantzia, esaten ez denaren ez existitzean datza, hau da, emakumeetaz ez hitz egitean, ekonomian, zientzian, kulturean... ez ikusgarri egiten dira.

Pertsona guztiek erabili dezakegu hizkuntza ez sexista. Hizkuntzaren zabalera aukerak ematen dizkigu, besterik gabe hitz egokiak aukeratu beharko ditugularik.

Ez dugu jendarte berdina bat osatuko, hizkuntzak emakumeak ezkutatu eta menperatuak aurkezten dituen bitartean.

Jokaera posibleak

- Hizkuntza sexista ez erabiltzearen konpromiso politikoa.
- Sortzen den udal dokumentazio guztian hizkuntza sexista ez erabiltzea bermatu.
- Udaletxearekin kontratatutakoei edo laguntzaren bat jasotzen dutenei hizkuntza sexista ez erabiltzeko eskatu.
- Politikariak eta teknikariak hizkuntza sexista erabili ez dezaten formatzea.

Hizkuntza sexista ez erabiltzeko arauak

AKATS TIPIKOAK

1. **Emakumeak eta gizonak aipatzeko maskulinoan hitz egin:** Teknikari jauna, Legegizona, gizonak, aitak...
2. **Bi sexuak aipatzen direnean beti maskulinoa femeninoaren aurretik jartzea.**
3. **Emakumeentzako eta gizonentzako tratu desberdina erabili:** La Sánchez Vicario y Nadal, Señor / Señorita.
4. **Hitzak feminizatu artikulua femeninoa ipintzen, zuzenean femeninoa erabili ordez:** "la abogado", "la médico", "la técnico".
5. **Emakumeei eta gizonei nolakotasun desberdinak eman:** Emakumeetan normalean estetikaren zer ikusia duten aspektuak nabarmentzen dira eta gizonetan adimenarekin erlazionaturik daudenak.
6. **Emakumeak, etxeko-andre, zaindari... bezala bakarrik agertu, eta gizonak familiarik bananduak, ekonomiako eta arlo publikoko arduradun...** erresposabilitatea izaten, gizon zein emakumeak modu berdinean garatu ditzaketen faktoreak ahaztuz.
7. **Deskalifikatzen duten adierazpenak erabili:** " Ba!! Emakumeen gauzak"
8. **Emakumeak aparteko maila bezala tratatu edo jabego maskulinoa bezala:** "ikasleak, emakumeak, langabetuak..." "Nomadak beren tresnekin, abereekin, emakumeekin... lekuz aldatzen ziren"

9. **Gizonekin duten harremanagatik emakumeak aipatu:** “__ren emaztea ”
“__ren alarguna ”...
10. **Irakurketa zaila eta deserosoa egiten duten arropa @ eta marren erabilera.**

JARRAITU BEHARREKO ARAUAK

1. **ABSTRAKTOEN ERABILERA:** Idazkaritza, zuzendaritza, enpresa...
2. **EPIZENOEN ERABILERA (genero gramatikal bakarrarekin bi sexuak biltzen dituena):** Jendea, Jendartea, familiak, gazteria...
3. **ERABILGARRIA DA “PERTSONA” ETA “PERTSONAL” HITZAREN ERABILERA:** Pertsonak, pertsonal teknikoak.
4. **ADJETIBOAK ETA PARTIZIPIOAK:** izen bati baino gehiagori zuzendua badago, azkenekoarekin bat egingo dute honen atzetik doazenean, edo lehenengoarekin, aurretik badoaz: “Estimadas todas y todos”, “Amigas y amigos todos”.
5. **MASKULINOA ETA FEMENINOA BATERA ERABILI:** batez ere dokumentu, inpreso... marrik eta arropa ekiditeko: “Jauna edo andrea ”
“Emakumeak edo gizonak “
6. **MASKULINOA GIZONETAZ BAKARRIK HITZ EGITEAN ERABILI.**
7. **IDAZKETAN ALDAKETAK:** artikulua ezabatu: :”*se busca joven*”,
Beste batengatik aldatu: “cada miembro”, “el miembro” orde.
“*Quien*” edo “*quienes hitza sartu*”: “*quien pueda*”, “*el que pueda*”
orde.

“Se” adierazpena erabili: “se deberá pagar en metálico”, “el que pague” ordez.

Izen ordeak erabili “nos”, “nuestros”: “es bueno para nuestro bienestar” “es bueno para el hombre” ordez.

Izenordeak aldatu “uno” “alguien o cualquiera” -rengatik: “cuando uno sale a la calle” “cuando alguien sale” -rengatik.

Subjektua ezabatu aditzaren pertsona aldatuz: “recomendamos pagar en metálico” “el abonado tendrá que pagar en metálico”ordez.

8. JENDARTEAN EMAKUME ZEIN GIZONEN PARTEHARTZEA ISLADATZEN DITUZTEN FORMULAK ERABILI: “Asociación de madres y padres” , “el pueblo romano”.

9. EMAKUME ETA GIZONEN ADIBIDEAK ERAKUTSI ARLO EZ ESTEREOTIPATUETAN: “Emakume gaitu eta jarrera aktiboekin ” , “arrakastako emakume profesionalak ”, “emakume independenteak , helburu propioekin “ eta “gizonak maitasunezko jarrerekin “, “etxeke lanetaz arduratzen diren gizonak “, “gizon irekiak “.

10. EMAKUMEAK ETA GIZONAK MODU BERTINEAN (batez ere lan arloan): “Andrea “, “Álvarez “ (emakume bat aipatzeko) eta ez “polita “ “neskato “.

11. LANBIDE ETA TITULAZIOENTZAKO FEMENINOA ERABILI: “Técnica”, “jueza”, “médica”, “arquitecta”...

IDAZKETAN

Goiburuekin eta bukaerekin kontua izan behar da.

“Estimada Sra.” Bere sexua dakigunean

“Firma de la persona titular”

“Firma de la Dirección”

“Firma del Solicitante”.

Hizkuntza sexista erabiltzen ari zaren jakin nahi baduzu, esaldiari buelta eman, zalantzan duzun hitza beste generora pasatuz. Sexista edo iraingarria bada, ziur aurreko esaldia ere sexista izango dela.

Lan talde paritarioak

Jendetzaren %50 baino zer bait gehiago emakumeak dira, beraz demokrazia indartsu batean, proportzio horretan ordezkatuak egon beharko lirateke. Hau ez bada gertatzen, jakintzak, esperientziak eta adimena galtzen egongo gara.

Jarduera posibleak:

- Jarduera plana sortu aurretik emakume eta gizonen beharrak identifikatu.
- Lan taldeetan emakume eta gizonen partehartze orekatua bultzatu.

Jokabide publiko desberdinetan genero ikuspegi egokitua

✿ Diagnostikoa

Genero ikuspegia daukan diagnostiko batek, gaitasuna dauka pertsonak emakume edo gizon bezala tratatzeko, beren behar, perzeptzio eta egoera desberdinak kontutan hartuz eta ez talde homogeneoa bezala. Generoen arteko botere harremanak ikuskor egiten ditu gizarte desberdintasunak agerian utziaz, genero eraikuntza sozialari ala nola desberdintasun horien aldaketa prozesuari lotuta. Emakumeen aukerak zabaltzeko, behar eta eginbeharrak orekatzeko, eta desberdintasuna berregiten duten faktoreak aldatzeko prozesu eta helburuak egin eta finkatzeko gaitasuna duen diagnostikoa da.

Genero ikuspegi egokitan diagnostikoak kontutan izan behar du:

- Demografia azterketan datuak sexuka bananduak egon behar direla.
- Onuradun taldearen azterketan, kontutan izan beharko du:
 - Emakume eta gizonen arteko ekintzen banaketa. Emakume eta gizonen arteko eginbehar eta ekintzen banaketa desberdinaz jabetzeak, lan denborak, lanaren banaketak edo ekintza batzuen eta besteen ezaugarriak ikuskatzen laguntzen du. Emakumeen lana ikuskatu, batzuen eta besteen esfortzua, laguntza eta konfliktoak nabarmendu.

- Arloen araberako ekintzen deskribapena: Ugalgarria, emankorra, politikoa eta soziala. Emakumeentzako lan pisuaren banaketa desberdinaren datu interesgarriak ematen ditu, arlo bakoitzaren balorazio desberdina norik betetzen duenaren arabera.
- Generoen arteko zatiketa, gaur egun emakume eta gizonen artean aukerentzako, errekursoentzako, zerbitzuentzako, partehartzeko... dauden desberdintasunak dira. Soldata desberdintasunak, errekurso eta enplegu sarreretarako dauden aukera desberdinak, politikan dagoen partehartze desberdina agerian jartzen dituena.

➤ Inguruaren azterketa:

- Aztertuko den egoera identifikatu. Kontutan izan beharko da:
 - Emakume eta gizonen egoerak, baldintzak eta jarrera desberdinak.
 - Emakume eta gizonen bizi baldintza desberdinak: Hezkuntza sarrerarako arazoak, lanpostuetarako, gaikuntza, lan-karga gehiegia, kontziliazio falta, denbora falta, pobreziaren feminizazioa... eta hauen behar eta interesen desberdintasunak izaten ditu kontutan.

- Jendartean emakumeak eta gizonak duten posizioa desberdinari eta batzuei eta besteei ematen zaien onspena barne hartzen du: Erabakiak hartzeko guneetan, partehartze politikoan, balorazio berdineko lanpostuetan soldata berdintasun edo desberdintasunean, errekurso, zerbitzu eta aukeren sarreretan mugaketak... Emakumeen bazterketa edo onarpenari harrera egiten dio.
 - Zer desorekak daude emakume eta gizon horien baldintzen artean.
 - Zer mugak dauden egoera hori gainditurik ez egoteko.
- Genero adierazleak: Denboran eta espazioan dauden desberdintasunak ikusgarriak edo ez ikusgarriak egitea posible egiten dute.

Genero adierazle kuantitatiboek sozio-demografian edo sozio-ekonomian gizonen eta emakumeen balore erlatiboak neurtzen dituzte. Emaitzen adierazleak dira eta emakume zein gizonen egoera osotasunean erakusten dute, batzuen eta besteen baloreen desberdintasunak generoen arteko zatiketa ezarriko du.

Kuantitatiboekin batera, eta genero ikuspegi egokituaz hitz egitean, ezin ditugu adierazle kualitatiboak ahaztu, azterketa gai diren arlo desberdinetako emakumeen esperientziak jasotzea posible egiten dutenak, jarrera aldaketak aztertuz eta

pertzepzioak jasoz. Zenbait aldaketen eta hauen enpoderatzearekiko erresistentzia ere ikuskatzen dute.

Bi adierazleak osagarri eta beharrezkoak dira.

Enpoderatzea: Emakumeak beren bizitzaren jabe izateko ematen den prozesua, erabakitzeko eta aritzeko baimenduz eta gaituz. "Beste baten " objektua izatetik bere bizitzako subjektu izatera pasatuz. Enpoderatzeak emakumeak gaitzen ditu, balorazioa, onspena, nagusitasuna... ematen die.

✿ **Genero ikuspegia duten programen eraketa**

Proiektu guztiak esku hartze sozialeko prozesuak dira, beraz pertsonen eta taldeen harremanetan eragina daukate. Kontutan izan behar du zer nolako egoeran daukan eragina edo izan dezakeen eragina, lortu nahi diren emaitzetara begira. Beraz ezin ditugu emakume eta gizonen arteko desberdintasunetan laguntzen duten genero eraikuntza sozialak ahaztu.

Proiektu batek ez badu genero ikuspegi egokitua kontutan hartzen, kontziente edo inkontzienteki sistema desberdintzaile eta baztertzaila indartzen ari da, jokabide bat ez delako inoiz generoaren inguruan neutroa izaten.

Prozesuaren atal desberdinak aztertzean honako irizpide hauek izan beharko dira kontutan:

- **Diagnostikoan** (aurretik ikusia)

- **Helburuen definizioan eta berdintasunarekiko ekarpenetan.**

Helburu definizio guztietan, helburu orokor eta zehatzak zehazten dira.

Helburu orokorrek indarrean dauden berdintasun politikoeekin koherenteak izan beharko dute:

- Adibidez testuinguru politikoa berdintasunean aurreratzeko lagungarria den aztertu.
- Gizon eta emakumeen behar desberdinei erantzuna ematen dieten kontutan izan.
- Berdintasuna modu esplizituan aipatzen bada...

Helburu zehatzak generoen arteko harremanen hobekuntza bultzatu beharko dute, adibidez:

- Neurriak gizon edo emakumeengana doazenean mugatu.
- Aldatuko diren emakume eta gizonen behar konkretuak zehaztu.
- Edo, zer neurritan lagunduko den emakume eta gizonen arteko desorekak murrizten.

➤ **Diseinua eta plangintza**

Bai diseinuan, nola plangintzan, ezinbestekoa da talde lana, dauden errekurtsoez jabetzea eta espero diren emaitzak argitzea.

- Lan taldea: generoaren inguruko ezagutzak izan beharko ditu eta ahal den neurrian talde parekidea osatu behar da. Guzti hau egin behar da, sexuen arteko erantzukizunen eta funtzioen banaketa egokia egiteko, talde lanean dauden estereotipoak identifikatzeko proiektuan zuzendu ahal izateko, aukera berdintasuna nori bultzatuko duen erabakitze eta berdintasunaren inguruan egon daitezken formazio beharrak identifikatzeko,

- Errekurtsoei dagokionez, berdintasunarentzako lagungarriak izango diren aztertu:
 - Emakume eta gizonen partehartzea bultzatzen duten ikustea.

 - Emakume zein gizonen behar desberdinak eta emakumeen mugak kontutan izatea.

 - Emakumeen beharrei harrera emateko errekurtsoak egokitzea.

 - Berdintasun helburua aurrera eramateko denbora eta dirua ba dagoen ikustea.

 - Emakume, zein gizonen gaitasunak, proiektuan erabiltzearen ideia aurreikusia dagoen argitzea.

- Espero diren emaitzei dagokienez: proiektu guztietan bezala ikusi diren beharrek inkoherentea izatea ezinbestekoa da.
 - Espero diren emaitzak emakume eta gizonen bizi baldintzak hobetzera zuzenduak dauden aztertzea.
 - berdintasunaren inguruko emaitzak neurtzeko adierazleak definitzea.

➤ **Proiektuaren garapenean**

Proiektu guztien garapenean bi faktore izaten dira kontutan: Metodologia eta betepena.

- **Metodologia**

Partehartzea eta kooperazioa bultzatzen duena eta partekidea behar du izan. Honetarako kontutan izan behar da:

- Talde desberdinen partehartzea bultzatu den.
- Emakumeen partehartzea eta erabakiak hartzeko prozesuak sustatzeko neurriak hartu diren.
- Talde laneko emakume zein gizonen gaitasunen garapena eta motibazioa aukera berdintasunetik bultzatzen diren.

Garapenaren jarraipenari ere harrera egingo zaio eta kontutan izan beharko da:

- Ea emakumezko zein gizonezkoetan eragiten duen eta zer neurritan.
- Talde laneko emakume eta gizonen motibazioa handitzeko neurri espezifikoak dauden eta norengan daukaten eragina.
- Ea lan metodoan berdintasunaren jarraipena egiteko adierazleak diseinatu diren.

- Betepena

Aldez aurretik pentsatutako ekintzak egitean, proposatutako helburuen satisfazioa bilatzen da. Kontutan izango da:

- Ea aukera berdintasuna bultzatzeko ekintza espezifikoak dauden.
- Izan diren desberdintasun eta mugaketak nolakoak diren.
- Zer errekurtsoekin kontaktzen den eta hauek nahikoak ote diren.
- Ea esku hartzen duten pertsona guztien gaitasunak eta abileziak nola erabiliko diren aldez aurretik planteatu den.

- Edo zer neurritan eragina duten inplikaturako pertsonengan.

Ebaluazio faseak helburutzat, garaturako programak generoen arteko harremanetan izan duen eragina neurtzea izango du. Honetarako, ezinbestekoa da, partehartze, errekurso, arau, balore eta eskubideen inguruko arloetan, emakume eta gizonen arteko desberdintasunak ezagutzea, hala nola, berdintasun politikak desberdintasunaren egozpenean eta berdintasunaren zabalkuntzan izan dituen ekarpenak aztertzea.

- Partehartzea: prozesuaren barruan, emakume zein gizonek zein neurritaraino hartu duten parte, bai parte aktibo zein onuradun bezala.
- Baliabideak: banaketa nola egin den identifikatu, baliabideak ondorengoak izan daitezkeelarik, denbora, espazioa, lana, aisialdia, hezkuntza eta formakuntza, informazioa eta teknologia berrietara sarrera, aberastasuna, erabakitzeke boterea...
- Jendarte arau eta baloreak: zein neurritaraino gaur egungo baloreak desberdintasunak betikortzen dituzten identifikatu.
- Eskubideak: Identifikatu nola emakumeak ez dituzten eskubideak gizonen kondizio berdinetan erabiltzen.

Informazio bilketarako sexuka banandutako datuak izan beharko ditugu kontutan eta hauen interpretaziorako genero perspektiba erabili. Honetaz gain ebaluaketak ere beharrezkoa du:

- Aldez aurretik, hasierako egoera ezagutu.
- Emakume eta gizonen hasierako egoerak nola aldatzen diren konparatu.
- Aldaketa horiek kuantifikatu eta konpondu nahi den desorekan zer nolako eragina duen aztertu.

✿ Zuzeneko esku hartzea edo harrera

Zuzeneko esku hartzea genero ikuspegiarekin egin dadin kontutan izan behar da:

- Eskuragarritasuna: Zuzeneko esku-hartzera iristeko erraztasuna aztertu beharko da, emakumeek erabiltzen duten garraio publikoan atentziora jarritik, euren ordutegi eta zerbitzuak aztertuz.
- Jendekiari laguntza eta harrera emateko zerbitzuen ordutegia kontutan izan, emakume askok pertsonaren bat bere menpe baitute.
- Konfiantza eta konfidentzialitatea bultzatu, batez ere biolentzia, sexu... inguruko gaien harrera zerbitzuetan.

- Beste arazoak detektatzeko erabili, adibidez, erabiltzen den hizkuntza erraztuz, emakume askok zenbait gaien inguruan (biolentzia, lan-orientabidea...) modu asertiboan adierazteko zailtasunak izan ditzaketelako.
- Zerbitzua eskaintzen duenak aukera berdintasunaren inguruko sentsibilizazioa izatea. Harrerara gerturatzen diren pertsonengana modu estereotipatuan ez zuzentzeko.
- Genero inguruko estereotipoaz jabetzeko gaitasuna duen pertsonala formatu.
- Aukera berdintasunarekin, bereizkeriarekin, biolentziarekin zerkusia duten gai desberdinen inguruko informazioa izan.
- Sexuka identifikatuta, baino anonimoa den iradokizunentzako postontzia.
- Zerbitzu espezifikoa behar dutenentzako koordinaziozko eta eratorrizko baliabide bideak sortu.

✿ Formakuntza

Udaletxetik planifikatutako ekintza formatiboek genero ikuspegi egokitua izan dezaten, zenbait gomendio izan behar dira kontutan:

- Formakuntzaren diseinua emakume eta gizonen behar eta ezaugarriei egokitu, edukietan, ordutegian...
- Jendekiaren laguntza zerbitzu bezala, kontziliazio neurriak sortu.
- Nahiz eta formakuntza, berdintasunarena ez izan, aukera berdintasunaren inguruko moduluak sartu.
- Gizon eta emakumeak erakartzen dituzten gai eta kurso interesgarriak sortu.
- Sindikatu eta erakunde formatiboekin, beraien eskuetan dauden ikasketetan aukera berdintasun moduluak sortzea adostu.
- Berdintasunezko eta genero perspektibazko formazio espezifikoa dutenen kontratazioa bultzatu.
- Berdintasuna lortzeko bidean formazio horren ekarpenak neurtzeko tresnak sortu.

✿ Genero ikuspegiarekin aurrekontuak

Aurrekontua diseinatzeko fase guztietan, genero ikuspegia egokitzea izango litzateke.

Udal arloari harrera emanez, aurrekontuetan genero ikuspegia egokitzea suposatuko luke:

- Gastu publikoari dagokionez:
 - Udalaren eskumenean dauden arlo bakoitzean emakume eta gizonentzat zuzentzen den gastua, hala nola, berdintasunerantz dihoana identifikatu.
 - Udaletxeko enplegu egitura aztertu, emakumeei zuzendutako dirua eta gizonezkoei zuzendutakoa kontutan hartuz.
 - Emakume eta gizonengana bideratutako baliabideak aztertu, kontutan izanda:
 - Formakuntzari zuzendutakoak (berdintasunekoak eta orokorrak)
 - Arlo bakoitzekoak, emakume zein gizonen behar eta egoerak aztertzeko.
 - Desorekak gutxitzera zuzendutakoak.
- Diru sarrera publikoei dagokionez: Diru sarrera publikoek norbanakoaren eta etxebizitzaren karga tributarioari harrera egiten diote, beraz, hasierako puntu bezala, etxebizitza bakoitzeko diru sarrera eta gastuak ezagutu beharko lirateke, hauen konposaketa eta kontsumorako joerak, dena sexuka sailkatuz.

Ezin da ahaztu kontabilitate sistemak egituratuak dauden modura ez dituztela emakumeak egiten dituzten lan ez ikuskorak eta ordaindu gabeak aztertuko.

Datu guzti hauekin, aurrekontuetan genero ikuspegia egokitzeko estrategiak sortu beharko lirateke.

✿ Laguntzak eta diru-laguntzak

Administrazioak garatutako lanaren osagarri moduan, oinarritzkoak dira laguntza eta diru laguntzen deialdiak generoen inguruko desorekak gutxitzeko, parte hartze zibila, ekonomikoak, kulturalak.. bultzatzen diren bitartean.

Komenigarria izango litzateke emakume taldeen, kulturalen... iradokizunak deialdiaren oinarriak egiterakoan kontutan izatea, hala nola, hizkuntza ez sexistaren erabilera eta jendartearen arlo guztietan emakumeen partehartzea ekintza positiboen bitartez hobetzea. Laguntza hauek edo beste edozein udal laguntza jaso nahi dituzten enpresa edo entitateek ekintza hauek izan beharko lituzkete kontutan.

✿ Kontratazio publikoak eta erosketak

Kontratazio publikoak, tokian tokiko ekonomia erreaktibatzen lagundu egiten du eta ezin du kontratazio prozesuan genero ikuspegia baztertu, aukera berdintasunaren printzipioa babestu behar baita.

Genero ikuspegia egokitua izan dadin, kontuan izan beharko da:

- Hizkuntza ez sexistaren erabilera,
- Informazioa emakume zein gizonei baldintza berdinetan iritsi dela ziurtatu,
- Aukera berdintasuna ziurtatuko denaren baldintzetan sartu,
- Baremazio tresnetan berdintasun klausulak sartu, lan taldearen eraketa paritario bezala, zuzendaritza postuetan emakumeak baditu edo hauek erresponzabilitate postuetarako promozionatzen diren, berdintasun plana edo ekintza positiboak dituen edo ez, soldata maila ekitatiboa edo bere proiektuetan hizkuntza ez sexista erabiltzen badu.
- Emakumeen enpresak kontratatze laguntza.

✿ Informazio eta zabaltze ekintzak

Genero ikuspegia duten ekintza guztien informazio eta zabalkuntzarako, arreta berezia izan beharko dute:

- Emakumeei eta gizonezkoiei modu berdinean iristen zaizkien hedapen kanalak.
- Eduki, irudi zein testuetan rol estereotipatuak ez berregin.
- berdintasun baloreen igortzeari atentzio berezia eskaini.